

Galdera

Lengua vehicular: nola esan euskaraz?

Erantzuna

Komunikazio-hizkuntza

1/ Euskaraz, sarri, itsu-itsuka ibili behar izaten dugu hasieran euskal ordain egokiak zein izan litezkeen asmatzeko, eta hala gertatzen dira gertatzen direnak: ordain posible bat baino gehiago azaltzen dira. Gaur egun, esaterako, bizpahiru forma hauek daude lehian zure kontsultako terminoari dagokionez: **komunikazio-hizkuntza** eta **ikas-hizkuntza / irakas-hizkuntza**.

Dena ondo joatera, proposamen horietatik bat nagusituko da apurka-apurka, zer taldek sostengatzen duen, eufonikoa edo kakofonikoa den, komunikabideetan aukera guztietako zein erabiltzen duten... (mila arrazoi egon litezke). Edo, zorte ona izan ezean, berriz, jarraituko dute lehian, eta erabiltzaile arruntok noraezean ibiliko gara, zein aukeratu jakin gabe. Auskalo zer gertatuko den zure kontsultako terminoarekin.

2/ Horrelako zalantza bat dugun bakoitzean, *Elhuyar* eta *Zehazki* hiztegiak jotzen dugu hitz arruntak direnean, eta *Euskalterm* terminologia bankura hitz teknikoak direnean. Badaezpada, hiruretan kontsultatu dugu (Mozilla Firefox nabigatzaileerako Euskalbar tresna-barran dituzu, edo Chrome eta Edgeren Hiztegiabar tresna-barran, beste hiztegi askorekin batera, bi hiztegiok eta *Euskalterm* bera):

- Elhuyar eta Zehazki hiztegiek ez dute jasotzen.
- [Euskalterm](#) Terminologia Banku Publikoan, berriz:

eu komunikazio-hizkuntza

Definizioa: informazio edo zerbitzu bat eskaintzean, komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza; bereziki, irakaskuntzan jakintza transmititzeko irakasle eta ikasleek erabiltzen duten hizkuntza.

es lengua vehicular
fr langue véhiculaire
en everyday language

Euskaltermek gure azken urteotako historia honetan proposatu diren aukera guztiak biltzen ditu, zaharkituta geratu direnak edo desegokiak direnak ere bai; baina forma batzuek “**termino normalizatua/gomendatua**” etiketa dute (4^{Eu}), eta badirudi horietatik hobetsi beharko genituzkeela. Bada, **komunikazio-hizkuntza** terminoak horrelako etiketa du, eta, beraz, lasai asko erabili dezakezu hemendik aurrera. Bide batez esanda: Terminoa normalizatu hori, esaterako, [Soziolinguistika Hiztegia](#) delakoan ageri da. 2009an argitaratu zen hiztegi hori, eta bertan topatu ditzakezu zurea bezalako zalantza askorentzako erantzunak, edo hurbilekoak.

3/ Dena dela, EIBZ nafar elkartearen [Hezkuntzako Hiztegia](#) kontsultatzen baduzu, ikusiko duzu **irakas-hizkuntza** aukeratu dutela, Interneteko (komunikabideetako) hainbat tokitan aurkitu dugun forma bera. Proba egin dugu **ikas-hizkuntza** formarekin ere, eta hainbat eta hainbat adibide aurkitu ditugu Interneten.

Zirt edo zart egin behar denez, Euskaltermek gomendatzen duen terminoaren alde egingo genuke guk. Iruditzen bazaizu hura erabilia irakas/irakaskuntzaren erreferentzia galtzen dela, konpentsatu egin dezakezu, nola edo hala: **eskolako komunikazio hizkuntza**.